

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

646 *Huts-zuzenketa, honako honena: 27/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez zenbait neurri hartzen baitira zergen eta katastroaren alorrean.*

Abenduaren 28ko 27/2018 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2018ko abenduaren 29ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 314. zenbakian, haren bidez zenbait neurri hartzeko zergen eta katastroaren alorrean; bada, huts bat aurkitu dugu errege lege-dekretu horretan, eta honen bidez zuzentzen dugu:

7. orrialdean, 5. artikuluan 1. apartatuko taulan, hau dio: «2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2011»; baina honela behar du: «2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011».